

# UDALEKUAK 2017

## HH 5

HH telefonoa (Garazi)  675 228 474 (9:00-14:00)  
[udalekuak.oartzun@gmail.com](mailto:udalekuak.oartzun@gmail.com)  
[www.gazteoiartzun.net](http://www.gazteoiartzun.net) / [www.oartzuarrak.org](http://www.oartzuarrak.org)

3	4	5	6	7
<b>ONGI ETORRI</b>	<b>TOTEMA ETA JOLAS DINAMIKOAK</b>	<b>IPUIA IGERILEKUA</b>	<b>GUNE BERDEAK EZAGUTZEN</b>	<b>UR JOLASAK *</b>
10	11	12	13	14 (1.hamabostaldia bukatu)
<b>ERREKA **</b>	<b>MUSIKA EGUNA ***</b>	<b>IPUIA IGERILEKUA</b>	<b>SAHARA EGUNA</b>	<b>FLASHMOB **** GRABAKETA+AGURRA</b>
17 (2. hamabostaldia hasi)	18	19	20	21
<b>BERRIEI ONGI ETORRIA ZIENTZIA EGUNA</b>	<b>AITON ETXEA BISITA</b>	<b>IPUIA IGERILEKUA</b>	<b>JOLAS KOOPERATIBOAK</b>	<b>IPUIA IGERILEKUA</b>
24	25	26	27	28
<b>NATURAREKIN JOLASEAN (Zentzumen jolasak)</b>	<b>UDALEKURIK EZ</b>	<b>IPUIA IGERILEKUA</b>	<b>ERREKA**</b>	<b>ERALDATUZ AGURTU (Transformer)</b>

### OHARRAK:

Komenigarria da haurrak **mantala** ekartzea. Lehen egunean eraman eta udalekuetan uzteko aukera dute hauek bukatu arte.

\* Bainujantzia eta aldatzeko arropa ekarri behar da.

\*\* Errekan ibiltzeko oinetako egokiak ekartzea komeni da.

\*\*\* Bi jogurt pote ekarri musika instrumentua sortzeko.

\*\*\*\* Grabaketarako baserritar gona beltza+kamiseta beltza ekarri behar da.

# ARAUTEGIA

- ▶ Orduategia (9:30-13:30) errespetatzea eskatzen da.
- ▶ Udalekuetan zehar ahalik eta ohar gutxien banatuko ditugu. Beraz, plangintzatutako ekintzen gogorazpenik ez dugu bidaliko. Horregatik, kontuan hartu igerilekua eta erreka jartzen duenetan beharrezko gauzak ekartzea eta kamisetak sortzen jartzen duen egunerako kamiseta bat ekartzea. Plangintzan aldaketak ematen direnetan soilik bidaliko dugu oharra HHn eta LH1en. LH2tik aurrerako aldaketak hurrei ahoz jakinaraziko dizkiegu. Bestalde, egunero [www.gazteoiartzun.net](http://www.gazteoiartzun.net) eta [www.oiartzuarrak.org](http://www.oiartzuarrak.org) blogetan hurrengo eguneko mailaz mailako planaren berri emango dugu.
- ▶ Urtebetetzeak janaririk gabe ospatuko ditugu. Beraz, ez ezer ekartzea eskertuko genizueke.
- ▶ Udalekuetara gurpil gainean (bizikleta, patinetea,...) etortzeko aukera izango da. Eskura izango dugu bizikleten aparkalekua.
- ▶ Haur bakoitzak bere irudia babesteko eskubidea du, beraz, denon ardura da argazki eta grabaziorik ez egitea
- ▶ Haurrak jostailurik, dirurik, mugikorrik, kamerarik ez ekartzea eskatzen da.
- ▶ Haurrak udalekuetako ordutegian atera beharko balu orri bat betetzea eta sinatzea eskatuko da.
- ▶ Ez dugu botikarik emango.
- ▶ Autobus geltoki bakoitzeko ordutegia errespetatzea eskatzen da, bai goizean autobusean uzteko orduan baita eguerdian jasotzekoan ere. Ordutegi zehatza guraso bileran zabalduko dugu. Baita aurretik aipatutako blogetan ere.
- ▶ Hamaiketarako denbora tarte bat utziko dugu egunero. Familiaren esku janaria ekarri edo ez.